

Jone Sukia Dorronsoro

B maila • Aipamena

Jone Sukia naiz, 16 urteko beasaindarra. Betidanik La Salle ikastetxean ikasi izan dut eta bertan nire azken urtea den honetan nire lehen saria jaso dut.

Irakurtzea gustuko dut eta idaztea gehiago kostatzen zaidan arren, saiatzen naizenean nahiko ondo ateratzen zaidala uste dut. Nire idazlanaren gai nagusi bezala maitasuna hartu dut eta zuek ezinezko maitasun hau ahalik eta gertuen sentitu dezazuen saiatu naiz.

Beraz, mila esker eta ea gustoko duzuen.



MAITE ZAITUT, LAZTANA

1945ko urriaren 27a

James maitea:

Hau oroitzapen baten urteurrena da, Afrikako iparraldean lehen aldiz abesten entzun zintudan 1943ko urriaren 27 haren urteurrena. Abesti horrek inoiz bizi izan ditudan momentu zoriontsuenak dakarzkiburura. Estatu Batuetako armadaren tropa baten showaren oroitzapena: hesi-puxikaz egindako errezelak, txokolate latez egindako lanparak, egun bakoitzeko azken uneetan amaitzen ziren entseguak, eta tenor-ahots zoragarria zuen mutil ederra. Zure irudiak atentzioa piztu zidan ueña. Gorputz indartsu hari, kopetan, begietan eta ezpainetan gehitzen zitzaion pasioaz ohartu nintzenean. Estreinaldi gaua Canastelen (beharbada moskatel ardo gehixeago hartuta eta ulertzen ninduen norbaiten konpainia). Zirrarez beteriko egunak Orango Udal Opera dotore eta maiestatetsuan antzezten: gaizki ulertu bat eta adiskidetzeari abesbatzaren irtetea.

Edariak Coq d'oren, afaria Aubergen, eraztun bat eta hitzeman bat egina. Erresuma Batuko lehen mailako armadaren ikuskizuna: moskatela, whisky eta ardoa. Kamioetik bere dendako oheraino arrastaka eraman zuten bat. Izugarritzko euri zaparrada eta blai egindako bi gudari lautada afrikarrek zuhaitz bakarti baten azpian. Freskura mediterranearra, anoaz egindako piknika eta Coca-Cola beroak. Zertara gindoazen jakiteko behar bezain azkarrak izan ziren bi teniente, baina ez bakarrik egon nahi genuela jakiteko behar bezain zentzuzkoak. Screwballseko pianista bat, lehia, egun dohakabeak eta gau bakartiak. Gau hotz eta haizetsua, zu eta biok G.I.-en* antzokiko leihotik sartzen eta antzeztokiaren atzealdeko ohean lo geratzen, bata bestearen besoetan bildurik. Esmatzean, inork ikusi ez gintuela konturatzean izan genuen sorpresa. Ibilaldi azkar bat itsaslabar batera. Ateratako argazkiak eta mahats more eta mahasti berdeen artean egindako geldiunea.

Beste gudari batekin barrezka ikusten zintudanean eztarrian jartzen zitzaidan korapilo sendoa.

Zuk, jeloskor ez jartzeko, lagunak besterik ez zinetela esaten zenidanean. Gure artekoa ere horrelaxe hasi zela ohartzen ez zinenean, laguntasunarekin. Horrek izutzen ninduela ez zenekienean, zuk beste pertsona bat ni baino gehiago maitatzera iristeak. Hori nire beldurrik handiena zenean. Orain ordea, zutaz ahaztea da beldurtzen nauena, zure irudiaz, itxuraz ez oroitzea.

Burua galtzen hasia nintzenean jada, gure artekoa gaizki zegoelako Jainkoaren aurrean. Nire burua gorrotatzen nuenean. Gu garena gaizki dagoelako. Inor ez bezala maite zaitudalako. Ez larritzeko esaten zenidanean. Bakoitzak ze ezpain musukatzen dituen, ze begi begiratzen dituen, ze bihotz zaintzen duen eta ze pertsona pozten duen aukeratzen duela oihukatu zenidanean. Mundua ulertzea ez dela erraza aitortu, baina inprobisatu genezakeela proposatu zenidanean. Niri ordea, zu ulertzea egiten zait zaila, baina hori gertatzen omen da artelan guztiekin.

Orain dela pare bat urte zoriontsu ginen, orain, ez gara. Gure elkarrizketak behin eta berriz nire buruan errepikatzen ditudanean. Gauero zurekin amesten dudanean. Oroitzapenek kafeak baino gehiago iratzartzen nautenean. Gogorra egiten zaidanean zutaz galdetzea, irribarra eta malkoak ezkutatzea zutaz oroitzean. Behar zaitudala konturatzen naizenean. “Bizitzak jarraitzen du” esaten didatenean eta egia ez dela pentsatzen dudanean; batzuetan bizitzak jarraitzen ez duela eta egunak igaro besterik ez direla egiten iruditzen zait.

Zoriontasun hutsa etxera itzuli behar ginela esan zigutenean eta zoritxarra, berriz elkar ikusiko ez genuela ulertu genuenean. Izarrez beteriko gau afrikarraren azpian emandako musu eztitsuak eta esandako agur maitagarriak, eta geldiezinak ziren malkoak malekoitik zure konboia zeruertzean desagertzen ikusi nuenean.

“Etxean” berriz ere elkarrekin egongo ginela hitzeman genuenean. Noizbait eskuetatik helduko ginen eguna iritsiko zela. Itzuli zarela, inoiz nigandik urrunduko ez zarela, bakea iritsi dela eta, azkenean, zoriontsu izango garela esan behar zenidanean. Baina patuak bazekien ez zinela inoiz hara iritsiko. Aitortzen dut inoiz gertatu zaidan gauzarik hoberena izan zarela eta ezin izango zaitudala inoiz ahaztu. Beraz, James, nonahi zaudelarik, oroitzapen hauek zuretzat niretzat bezain baliagarriak eta ederrak izan daitezela espero dut.

Zer gertatuko litzateke maitasuna eta heriotza besarkatuko balira? Maitasuna hil? Heriotza maitemindu akaso? Agian, heriotza maiteminduta hilko litzateke eta maitasunak heriotzaraino maitatuko luke.

Ez dakit laztana, nik hurrengo bizitzan ere maite izango zaitudala dakit bakarrik. Bidea motza bada ere, gogor zapaltzen duenak arrastoa uzten duela diote.

Brian Smith

** G.I. : “Government Issue”. Indar armatuen kidea edota armadarekin zerikusia duen edozer.*